

ILARRATZA

– ARABA / ÁLAVA –

Gasteiz eta Ilarratza artean zazpi kilometro daude. N-104 errepidean zehar joan daiteke bertara, Elorriaga eta Arkauti igaro ostean. Errepideak zati bi egiten ditu herria, eta elizara iristeko, ezkerretara egin behar da.

Gasteizko Udalaren barruan dago gaur egun Ilarratza, baina bada aipamenik Donemiliagako *Reja* izeneko agirian, *Hillarazaba* izenpean. Burdinazko bi hesi eman ohi zioten *Harbazuko* barrutiari. 1295. urtean, Almoravid jaunarekin izandako auzian *Yllarraçako* bi onuradun deitu zituzten.

Esta población se sitúa a 7 km de Vitoria, y se accede a ella por la N-104 tras pasar Elorriaga y Arkaute. La carretera divide en dos el pueblo, por lo que para llegar a la iglesia hay que girar a la izquierda.

Hoy forma parte del ayuntamiento de Vitoria, pero aparece ya en el documento de la Reja de San Millán como *Hillarazaba*, entregando dos rejas dentro del alfoz de *Harbazua*. En 1295 se citan en el pleito con don Almoravid a dos beneficiarios de *Yllarraça*.

Santa Eulalia eliza / Iglesia de Santa Eulalia

GAUR EGUNGO ERAIKINA Errenazimentuko lana da. Saloi-oinplanoa dauka, baina barruko horman Erromanikoko harlandu batzuk aprobetxatu di-

EL EDIFICIO ACTUAL es una obra renacentista con planta de salón en cuyo muro interior se han reaprovechado algunos sillares románicos. Románica es también



Bataiarria

Pila bautismal

tuzte. Bataiarria ere erromanikoa da; ontzi leuna du, eta, oinean, lau zutabe daude erdikoari itsatsita. Harroinak bakarkakoak dira, atzaparrez apainduta. Askotan azaldu-tako bataiarri mota da, dekoraziorik gabea.

Testua eta argazkia: REA

la pila bautismal, de copa lisa y pie con cuatro columnas adosadas al núcleo central. Las basas son individuales decoradas con garras. Responde a un tipo de pila habitual carente de decoración.

Texto y foto: REA

Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, p. 121; LÓPEZ DE GUERENU, G., 1962, p. 258; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1975, pp. 458-459.

